



---

## **Epatzea 1072/2017 prozedura laburtura**

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legeak 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, argitara ematen da errekurtoa jarri dela Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko lehendakariaren martxoaren 8ko 4/2017 Ebazpenaren bidez onartutako oinarrien aurka, eta Gasteizko 1 zenbakiko administrazioarekiko auzietarako epaitegira bidali dela 1072/2017 prozedura laburtuak, zeina Eukeni Ibarguren Peña, Oscar Cueto Santamaría eta Rubén Iriarte Cuadrado eskatuta hasi baita, eragindako espedientea.

Oinarri horiek dira karrerako funtzionario gisa (klasea: prebentzio eta su itzaltze zerbitzuak; azpieskala: operatiboa; kategoria: suhiltzaileak) sartzeko hautaprobaren deialdikoak.

Ohartarazten da ezen iragarki honen bidez epatu egiten dela prozeduran interesa duen oro autoetan agertu eta pertsonatu dadin. Horretarako, bederatzi egun izango ditu, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 30a

**Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren zuzendaria**  
**FRANCISCO JAVIER CARRO IGLESIAS**